

**“ISTORIOAK BELARRIETARA”**  
**IV. EUSKARAZKO KONTAKIZUN LABURREN LEHIAKETA**

Generoa: Haur ipuina (Adina:8tik 12ra)

Gaia: Baserria eta itsasoa

Hizkuntza: Euskara

Sariak: Lehena: 450 €

Bigarrena: 250 €

Hirugarrena: Nekazal etxe batean 2 gauetako egonaldia logela bikoitzean gosariarekin (2 pertsonentzat). Iraungitze-data: urte 1. (Nekatur)

Hautatutako ipuinen argitalpen ilustratua.

Deialdia: 18 urtetik gorako persona guztiei irekia

Antolatzaileak: Igartubeiti Baserri Museoa eta Untzi Museoa

Jasotze epea: 2018ko ekainaren 15a

**2016KO ARGITALPENA:**



## 2017KO ARGITALPENA:



### AURKEZPENA:

Igartubeiti Museoak Untzi Museoarekin lankidetzan, “Istorioak belarrietara” kontakizun laburren IV edizioaren deialdia egiten du. Deialdi honek idazketa euskaraz sustatzea eta zabaltzea du helburu, honakoan haur ipuinen generoa bereziki bultzatuz.

Gainera, kultur ondarearen inguruko lan modu berriak zabaltzea eta parte hartze zein esperimentazio gune berriak sortzea du xede.

### GAIA:

Deialdiaren gaia baserria eta itsasoa da. Erdi Aroaren amaieran, arrantzaren gorakadarekin batera, dolare baserria sortu zen. Lantegi izugarriak ziren eta tokiko kontsumoa hornitzeaz gain, merkataritza eta arrantza itsasontziak ere hornitzen zituzten.

Historian zehar, sagardoa, baserria eta itsasoa gaur egunera iritsi zaizkigun kontakizunak eta kondairak sortzeko gaiak izan dira. Esate baterako, Ataungo Agerre baserriko jabeen Jentilak egindako madarikazioa edo beraien aberastasunekin

gelditzeko asmoz eremu arriskutsuetara itsasgizonak erakartzen saiatzen ziren mamuen eta gezurtien kondairak

**Igartubeiti Baserri Museoak** euskal baserriaren historia, bilakaera eta bertan bizi izan ziren biztanleen eguneroko bizimodua hurbiltzea du helburu, baliabide hauen bitartez: baserria bera, interpretazio zentroa eta baratz ekologikoa.

Balio kultural, historiko, antropologiko eta arkitektoniko multzo bat biltzen, babesten eta hedatzen du. Balio multzo honek euskal ondarearen elementu nagusi bihurtzen dute, hala nola, bikain mantendutako jatorrizko egurrezko egitura eta barruan duen sagardo dolarea. Horretarako, euskal kultur ondarearekin eta baserri munduarekin erlazionatutako aisialdi jarduerak antolatzen ditu.

**Untzi Museoa**, ekipamendu irekia da, jendearengandik hurbila eta aktiboa gizakiaren eta itsasoaren arteko harremana hedatzeko eginkizunean, aldi baterako erakusketen eta kultura dinamizatzeko programen bidez. Halaber, bere helburuetako bat kanpo-harremanen sare bat osatzea da, hartara Museoa erreferentzia izan dadin euskal itsas historiari eta kulturari lotutako ekimenen artean.

## PARTE HARTZEKO OINARRIAK:

Deialdia interesaturik dauden 18 urtetik gorako pertsona guztiei zabalik dago.

Ipuinak euskaraz idatziak, **8-12 urte bitarteko irakurleei zuzenduak** eta argitaragabeak behar dute, alegia, aurrez inongo literatur lehiaketan sarituak izan gabekoak, zein zatika ala osorik, ez paperean ez eta digitalki sekula argitaratu gabeak.

Lan bakarra aurkeztu dezake egila bakoitzak.

Kontakizunen luzapena gutxienezko 2 orritakoa eta gehienezko 3 orritakoa (din A-4) izango da, imprenta tipografian idatziak (edozein letra mota estandar 12 tamainan, alde batetik idatziak eta bere goiko ezkerreko aldetik gratatuak.

Aurkeztutako kontakizunak Igartubeiti Baserri Museoko eta Untzi Museoko web gunetan edo beste hedapen euskarrietan sareratzeko erabili ahal izango dira egileekin aurretiko akordioa izanik eta beti egilea aipatuz.

## BALORAZIO IRIZPIDEAK:

Kontakizunen balorazio eta aukeraketa prozesuan ondorengo irizpideak betetzea modu positiboan aintzat hartuko da:

- Kalitatea eta originaltasuna
- Proposatutako gaiarekiko eta generoarekiko egokitzapena
- Irakurle hartzaileari egokitutako kontakizuna
- Sormena
- Oinarri hauetan proposatutako hedapena eta formatua



-k sustatua



rekin lankidetzan

## SARIAK:

Deialdi honek ondorengo sariak izango ditu:

Lehena: 450 €\*  
Bigarrena: 250 €\*  
Hirugarrena: Nekazal etxe batean 2 gauetako egonaldia logela bikoitzean gosariarekin (2 pertsonentzat). Iraungitze-data: urte 1. (Nekatur)

(\* Kantitate hauei indarreko legearen arabera atxikipen fiskala ezarriko zaie.)

Gainera, hautatutako ipuinen argitalpen ilustratua egingo da (Tartean lehen, bigarren eta hirugarren sariak egongo dira)

## AURKEZPEN GUNE ETA EPEA:

Kontakizunen jasotze epea 2018ko ekainak 15ean bukatuko da, eguna barne. (Data honen aurreko zigilu-marka dutenak onartuko dira)

### Kontakizunen bidalketa:

- Gutun azal itxi baten barruan kontakizunak goiburukoan izenburuekin eta ezizenaz sinatuak, eta izena emateko eskaera bidali beharko dira. Halaber, egileak adierazpen bat sartuko du esanez aurkeztutako lana originala eta argitaratu gabea dela, bere eskubideak ez dituela utzita eta ez dela beste lehiaketaren batean saritua izan ezta epaiaren zain ere. Gutun azal itxiaren kanpoan izenburua eta ezizena azaldu behar dira.
- Kontakizunak postaz bidaliko dira:  
Igartubeiti Baserri Museoa  
Ezki bidea 1. Km  
20709 Ezki-Itsaso (Gipuzkoa)
- Gutun azalean agertu beharko da:  
*ISTORIOAK BELARRIETARA. IV. KONTAKIZUN LABURREN LEHIAKETA*
- Gutun-azala pertsonalki, bere irekiera ordutegian, Igartubeiti Baserri Museoko Interpretazio Zentroan aurkeztu daiteke.
- Helbide elektronikoz bidaltzen den kontakizunik ez da onartuko (antolatzaileek anonimatua bermatzen dute).

15/1999 Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoaren eta 2007ko abenduaren 21eko araudiaren garapeneraren arabera, lehiaketa honetako parte hartzaileek emandako datuak Igartubeiti Baserri Museoko kudeatzailea den K6 Gestión Cultural-aren ardurapean dagoen fitxategi batean jasoko ditugu eta lehiaketa honetarako bakarrik erabiliko dira.

Izaera pertsonaleko datuak egokiak diren babespen mailarekin erabiliko dira, datu horiek aldatzea, galtzea, baimenik



CASERÍO MUSEO  
IGARTUBEITI  
BASERRI MUSEOA

-k sustatua



UNTZI MUSEOA  
MUSEO NAVAL



ORAIN  
KULTURA

rekin lankidetzan

gabe tratatzea edo eskuratzea saihesteko. Datuen jabeek sarbide, zuzenketa, indargabetzea edo aurkaritza eskubideak gauzatu ahal izango dituzte.

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- Izen emate eskaera osatua (oinarriekin batera topatuko dituzu)
- Aurkeztutako lana originala eta argitaratu gabea dela, bere eskubideak ez dituela utzita eta ez dela beste lehiaketaren batean saritua izan egiaztatzen duen adierazpena.
- Kontakizunaren egilearen NAN-aren fotokopia
- Kontakizun originala eta bi kopia

(Gutun azal itxi baten barruan kontakizunak goiburukoan izenburuekin eta ezizenaz sinatuak, eta izena emateko eskaera bidali beharko dira. Halaber, egileak adierazpen bat sartuko du esanez aurkeztutako lana originala eta argitaratu gabea dela, bere eskubideak ez dituela utzita eta ez dela beste lehiaketaren batean saritua izan ezta epaiaren zain ere. Gutun azal itxiaren kanpoan izenburua eta ezizena azaldu behar dira).

## EPAIMAHAIA:

Igartubeiti Baserri Museoko ordezkaria, Kizkitza Ugarteburu  
Untzi Museoko ordezkaria, Xabier Alberdi  
Iratzi Goikoetxea, idazlea, blogaria eta irratia esataria

## DEIALDIAREN EMAITZAK:

Hautatutako kontakizunen argitalpena egingo da. Hautaketa deialdiaren epaimahaiak egingo du.

## HAUTAGAIEN ENGAIAMENDUA:

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzea dakar.

Parte hartzaileek deialdi honetara aurkeztutako kontakizunen originaltasunaren eta egiletasunaren erantzule dira, eta zentzu honetan, Igartubeiti Baserri Museoari eta Untzi Museoari erabilera bermatzen diete, beraien aldetik guzti hau ez betetzeak modu zuzenean edo zeharka eragin ditzazkeen kalteen erantzukizunetatik salbuesten ditu.

## JABETZA INTELEKTUALA:

Parte hartzaileak egiaztatzen du bere lan propioa dela eta hirugarrenei eragin diezaiokeen eskubideetatik askea dela.

Egileek aurkeztutako lanen ustiapen eskubideak bakarrik deialdi honetako eta bere emaitzen hedapen asmoetarako dohain baina ez modu eksklusiboan hezkuntzarako uzten dizkiote Igartubeiti Baserri Museoari, bere kudeaketa enpresaren bitartez, K6 Gestión Cultural IFK b-20482303 eta Untzi Museoari, Iratxeta Consulting SLU IFK B-26340612.

Horrela, K6 Gestión Cultural eta Iratxeta Consulting SLU, bi museoetako kultur



-k sustatua



rekin lankidetzan

programazioaren barne kontakizunak hedatu ahal izango dituzte, hezkuntza jardueretan, edozein argitalpenetan, idatzizko komunikabideetan, ikusentzunezkoetan edo web guneetan, epe mugagabea, beti ere egilearen jabetza intelektuala errespetatuz.

## DEIALDIAREN ERABAKIA:

Xede horretarako izendatutako epaimahaiak aurkeztutako kontakizunak balioztatuko ditu eta **2018ko uztailak 2ko** astean erabakia emango du. Lehiaketako irabazleei pertsonalki telefonoz jakinaraziko zaie.

- Igartubeiti Baseri Museoak eta Untzi Museoak lehiaketaren emaitza hutsik gelditzeko eskubidea izango dute.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauetako betebeharrak eta baldintza bakoitza eta era berean guztiak baldintzarik gabe onartzea suposatzen du.

## ARGIBIDEAK ETA INFORMAZIOA:

Igartubeiti Baseri Museoa  
Tfnoa: 943 72 29 78  
E-mail-a: [igartubeiti@gipuzkoa.eus](mailto:igartubeiti@gipuzkoa.eus)  
[www.igartubeitibaserraia.eus](http://www.igartubeitibaserraia.eus)